



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko azaroaren 22a

137. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa ea Gobernuko nork hartuko duen bere gain Tafalla aldean abuztuaren 25ean egondako sutean protokoloa ez betetzeagatik erantzukizun politikoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntzako kontseilariak bere dimisioa aurkeztuko duen edo kargutik kenduko duten Justizia Auzitegi Nagusiak euskaraz deitutako ehun lanpostuak indargabetzeko epaia eman ondoren. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, El Culebrete hondakinen tratamendurako zentroan hondakinak hartzeko Erriberako Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioaren arteko aurreakordioari buruzkoa. Rubén Velasco Fraile jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako 2017-2019 aldiko II. Ekintzailtza Planak jasotzen dituen ekintzei eta helburuei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoak Nafarroa anexionatzeari buruz Nafarroako Gobernuko lehendakariak Televisión Española-n egindako adierazpenei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Guardia Zibila Nafarroatik irteteari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalva andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak NUParen Tuterako campuserako dituen planei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Eskubide Sozietako Departamentuak Baluarte Fundazioarekin sinaturiko akordioaren baldintzei buruzkoa. M.^a Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (7. or.).
- Galdera, irakasle ez-unibertsitarioen lan eskaintza publikoko ehun euskarazko lanpostuak baliogabetzen zituen epaiaren aurkako errekurtsioa jartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen darabilen Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan egindako murrizketak lehengora itzultzeko, zeintzuk diren bere lehentasunak eta zein izanen den hezkuntzako mahai sektorialean horri buruzko negoziazioa berreskuratzeko prozesua. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Hezkuntzako kontseilaria kargutik kentzeari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Anbulantzia Medikalizatuko Zerbitzuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eskumenen barruan beka-sistema aldatzeko plan bat egoteari, unibertsitate-ikasketetarako bekei eta NUPeko tasak direla-eta Gobernuak darabilen politikari buruzkoa. Galdera erretiratzea (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- María Fátima Andreo Vázquez andreak foru parlamentari karguari uko egitea (12. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa ea Gobernuko nork hartuko duen bere gain Tafalla aldean abuztuaren 25ean egondako sutean protokoloa ez betetzeagatiko erantzukizun politikoa.**SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Gobernuko nork hartuko duen bere gain Tafalla aldean abuztuaren 25ean egondako sutean protokoloa ez betetzeagatiko erantzukizun politikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Sergio Sayas López jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Suhiltzaileen buru Bayona jaunak eta abuztuaren 25eko guardiako arduradun Boulandier jaunak Parlamentu honetako Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean azaroaren 9an agerraldia egin eta gero, argi gelditu zen Tafalla aldean egun horretan izandako sutean ez zela protokoloa bete.

– Gobernuko nork hartuko du bere gain protokoloa bete ez izanaren erantzukizun politikoa?

Iruñean, 2016ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, jakitekoa ea Hezkuntzako kontseilariak bere dimisioa aurkeztuko duen edo kargutik kenduko duten Justizia Auzitegi Nagusiak euskaraz deitutako ehun lanpostuak indargabetzeko epaia eman ondoren.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Hezkuntzako kontseilariak bere dimisioa aurkeztuko duen edo kargutik kenduko duten Justizia Auzitegi Nagusiak euskaraz deitutako ehun lanpostuak indargabetzeko epaia eman ondoren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontseilariak dimisioa emanen al du edo kargutik kenduko al dute, Justizia Auzitegi Nagusiak euskarazko 100 lanposturen deialdia baliogabetzea erabaki eta gero?

Corellan, 2016ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, El Culebrete hondakinen tratamendurako zentroan hondakinak hartzeko Erriberako Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Hondakin-en Kontsorzioaren arteko aurreakordioari buruzkoa.

RUBÉN VELASCO FRAILE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Rubén Velasco Fraile jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, El Culebrete hondakinen tratamendurako zentroan hondakinak hartzeko Erriberako Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren arteko aurreakordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, galdera hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak ahoz erantzun dezan.

Erriberako Mankomunitateak eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak aurreakordioa lortu dute Erriberako Mankomunitateak EA Eren 75.000 tona hiri hondakin solido jaso ditzan urtero, hondakinak tratatzeko "El Culebrete" zentroan. Aurreakordio hori dela-eta Foru Erkidegoko zenbait hedabidetan orain dela egun batzuk argitaratutako informazioari dagokionez:

Nafarroako Gobernuak zer informazio dauka horri buruz? Zer balorazio egiten du aurreakordio horri buruz? Nola jaso liteke hori orain prestatzen ari den Hondakinei buruzko Planean?

Iruñean, 2016ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Rubén Velasco Fraile

Galdera, Nafarroako 2017-2019 aldiko II. Ekintzailtza Planak jasotzen dituen ekintzei eta helburuei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako 2017-2019 aldiko II. Ekintzailtza Planak jasotzen dituen ekintzei eta helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako II. Ekintzailtza Planeko parte-hartze aldia irailaren 5ean bukatu zen; hortaz, pentsa daiteke plan hori abian dela erabat. Aldi berean, orain dela gutxi aurkeztu da Global Entrepreneurship Monitor-GEMen "Nafarroa 2015" txostena, zeinak alderatu egiten baitu gure foru erkidegoko ekintzailtza eta Espainiako gainontzeko beste erkidegoetakoa eta Europako gainontzeko herrialdeetakoa.

Nafarroako Gobernuaren ustez, aski al dira Nafarroako 2017-2019 aldiko II. Ekintzailtza Planean jasotako ekintzak eta helburuak?

Iruñean, 2016ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoak Nafarroa anexionatzeari buruz Nafarroako Gobernuko lehendakariak Televisión Española-n egindako adierazpenei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Euskal Autonomia Erkidegoak Nafarroa anexionatzeari buruz Nafarroako Gobernuko lehendakariak Televisión Española-n egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldearen eledun

Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Uxue Barkosek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gaur egun mantenduko al zenuke Televisión Española-ko kazetari batek Euskal Autonomia Erkidegoak Nafarroa anexionatzearen aldekoak ote zareten jakiteko egindako galderari eman zenion erantzuna? Erantzuna honako hau izan zen, hitzez hitz: “Erreferendum bat eginen balitz, nik baiezko botoa emanen nuke, uste dudalako foru-lurraldeen bat-egiteak baduela zentzurik, gutako askoren irrika politikoari erantzuten diola.”

Iruñean, 2016ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Guardia Zibila Nafarroatik irteteari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALVA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Guardia Zibila Nafarroatik irteteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariak uste al du Guardia Zibilak Nafarroatik irten behar duela?

Iruñean, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Hezkuntza Departamentuak NUParen Tuterako campuserako dituen planei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak NUParen Tuterako campuserako dituen planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein dira Hezkuntza Departamentuaren planak NUPen Tuterako campusari dagokionez?

Iruñean, 2016ko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak Baluarte Fundazioarekin sinaturiko akordioaren baldintzei buruzkoa.

M.^a ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak Baluarte Fundazioarekin sinaturiko akordioaren baldintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko kide Isabel Aranburu Berguak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak 2016ko azaroaren 24an, ostegunean, egin beharreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin izan dugunez, Eskubide Sozialetako Departamentuak akordio bat sinatu du orain dela gutxi Baluarte Fundazioarekin, gizartean baztertua geratzeko arriskua duten pertsonak fundazio horren ikuskizunetara joan ahal izan daitezen. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

– Zer baldintza jasotzen dira akordio horretan? Akordioa Nafarroako beste kultur gune batzuetara hedatzeko aukera aztertzen ari al zarete?

Iruñean, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Galdera, irakasle ez-unibertsitarioen lan eskaintza publikoko ehun euskarazko lanpostuak baliogabetzen zituen epaiaren aurkako errekurtsioa jartzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, irakasle ez-unibertsitarioen lan eskaintza publikoko ehun euskarazko lanpostuak baliogabetzen zituen epaiaren aurkako errekurtsioa jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko azaroaren 24an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Nafarroako Gobernuak iragarri du aurkaratu eginen duela Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, otsailaren 10eko 5/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitako irakasle ez-unibertsitarioen zenbait lanpostu betetzeko lan eskaintza publikoan jasotako euskarazko lanpostuak baliogabetzen dituen. Dekretu haren bidez, ehun funtzionario lanean ari dira praktikak eginez ikasturtearen hasieratik beretik.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditugu:

Gobernuak noiz jarriko du 5/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitako lan eskaintza publikoan jasotako euskarazko 100 lanpostuak baliogabetu zituen epaiaren aurkako errekurtsioa? Zer errekurtsio mota jarriko du?

Epai horrek ukitutako pertsonak zer administrazio-egoeratan daude, errekurtsioa gauzatzen den bitartean?

Epaia behin-behinekoz betearaztea eskatuko ez balitz eta errekurtsioan atzera egingo balitz ere, Gobernuak epaia betetzera behartuta egonen al litzateke?

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen darabilen Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan egindako murrizketak lehengora itzultzeko, zeintzuk diren bere lehentasunak eta zein izanen den hezkuntzako mahai sektorialean horri buruzko negoziazioa berreskuratzeko prozesua.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer aurreikuspen darabilen Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan egindako murrizketak lehengora itzultzeko, zeintzuk diren bere lehentasunak eta zein izanen den hezkuntzako mahai sektorialean horri buruzko negoziazioa berreskuratzeko prozesua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-
teko parlamentari Marisa de Simón Caballero

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Gobernuak parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Iragan legegintzaldian murrizketa drastikoak egin ziren Nafarroan hezkuntza publikoan; izan ere, Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuan jasotako murrizketa aginduzkoak nahiz ez-aginduzkoak aplikatu ziren.

Bestalde, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko ituna 2011n bukatu zen, eta premiazkoa da itun hori gaurkotzea.

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil hezkuntza publikoan egindako murrizketak lehengora itzultzeko? Zeintzuk dira bere lehentasunak? Zein izanen da hezkuntzako mahai sektorialean horri buruzko negoziazioa berreskuratzeko prozesua?

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Hezkuntzako kontseilaria kargutik kentzeari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Hezkuntzako kontseilaria kargutik kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ahoz erantzun diezaion:

Lehendakariaren ustez, ez al da logikoagoa Hezkuntzako kontseilaria kargutik kentzea, ezen ez departamentuko gainontzeko taldea?

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Anbulantzia Medikalizatuko Zerbitzuari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Sergio Sayas López jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Anbulantzia Medikalizatuko Zerbitzuari buruzkoa zen, eta 2016ko

ekainaren 3ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eskumenen barruan beka-sistema aldatzeko plan bat egoteari, unibertsitate-ikasketetarako bekei eta NUPeko tasak direla-eta Gobernuak darabilen politikari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako Gobernuaren eskumenen barruan beka-sistema aldatzeko plan bat egoteari, unibertsitate-

ikasketetarako bekei eta NUPeko tasak direla-eta Gobernuak darabilen politikari buruzkoa zen, eta 2016ko urriaren 4ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

María Fátima Andreo Vázquez andreak foru parlamentari karguari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

María Fátima Andreo Vázquez andreak (Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldea) idazki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko azaroaren 21ekoa, zeinaren bidez uko giten baitio foru parlamentari gisa dagokion eserlekuari 2016ko azaroaren 22tik aitzina.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 28. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako idazkia, foru parlamentari izaerari uko egitekoa. Izaera hori lortu zuen martxoaren 30eko 2/2015 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (62. zenbakiko NAO, 2015eko martxoaren 31koa), Podemos-Ahal Dugu hautagai-zerrendaren barruan.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza